

# Maribel:

## Eskuak luzatu eta ateak ireki

Begoña Kapape

San Frantzisko auzo jendetsuan badute emakume ekintzaile eta nekazinhonen berri. Hogei urte baino gehiago eman ditu bertan eta dagoeneko erreferentzia bat bilakatu da auzoan. Maribel da, Askagintzako Emakumearen bulegoko arduraduna. Kultur erakunde hori, hasieran, emakumeekin hasi zen lanean, droga menpekotasunen alorrean. Maribel ere auzoan bizi zen eta, hortaz, berehala ohartu zen drogak zirela eta han zegoen arazoaren garrantziaz.

Hasierako garaian, emakume autoktonoak joaten ziren hara laguntzaren bila, hau da, gizartean txertatuak baina drogaren mundu ilunean harrapatutako

emakumeak. Orain, ordea, gauzak aldatu egin dira, eta ez onera gainera. Gaur egun asko dira era guztietako laguntza eskatzera gerturatzen diren emakumeak, gehienak etorkinak.

“Auzoa eltzee baten antzekoa da, eta barruan buruko osasun, prostituzio, droga eta abarren inguruko arazoak egosten dira. Oso etsipengarria da emakume bat hiru seme-alabekin etortzen denean, lo egiteko leku bat bilatzeko laguntza bila, eta ezer ez aurkitzea, une horretan beharbada leku guztiak beteta daudelako. Gero bigarrena eta hirugarrena datoz, eta haiekin ere ezin duzu gauza handirik egin. Bitartekoak mugatuak



dirola konturatu eta lur jota gelditzen zara laguntza ematerik ez duzunean”, azaldu digu Maribelek.

Animikoki lan gogorra izan arren, berak ez du etsiko. “Egoera honi lotuta nagoela uste dut, gainera Askagintza nire alaba bezala dela sentitzen dut, nik ekarri dudala mundura. Proiektua bera oso ondo dago, gizarte-lan handia betetzen du hainbeste behar dituen auzo honetan, eta talde bikain batekin nago lanean”, gehitu du.

Hala ere, bokazioz betetako lana izan arren, Maribelek zail du laneko bizitzaren eta bizitza pertsonalaren arteko muga ezartzea. Auzo berean lan egin eta bizi izatea nekagarria da eta bera inoiz ez zen erlaxatzen, Askagintzako Maribel izaten zen beti. Orain, azkenik, lortu du: bere seme Ekainen amatxo izan daiteke, han, itsasorearen ondoan duen etxetxoan. **F**

